

# ARKUPEAK

Jubilatuuen elkartea  
Asociación de jubilados

03

2011 - 2022



Egilea / Autor:  
Fernando Etxeberria Mariezkurrena



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

### HIRUGARREN KAPITULUA

## ARKUPEAK-EN EBOLUZIOA ETA MODERNIZAZIOA

Bi kontzeptu horiek laburbiltzen dute azken 12 urteetako aldia, 2011.urtetik (urte horretan egin ziren presidente berriaren eta Zuzendaritza Batzordearen auteskundeak) 2022. bukaeraren arteko.

Zuzendaritza Batzorde berriko zenbait kidek unibertsitate prestakuntza zuten eta irakaskuntzan, bankuan edo administrazio publikoan erantzukizuneko postuak bete zitzuten; izan ere, baliabide teknologikoak erabili zitzuten eta elkartearren funtzionamenduan aplikatu, horrek eguneroko zeregin burokratikoak berritze eta azkar burutzea ekarri zuen.

24. aldizkariaren agurrean, Zuzendaritza Batzorde berri hau bazkide guztiei zuzendu zitzaien lehen aldiz proiektu batzuk azaltzeko.

Bertan adierazten denez, Nafarroako zonalde honetako gizarte ekintzarik garrantzitsuenetako bat Arkupeak sortu eta garatzea izan zen, Doneztebetik abiatuta inguruko berrogei herri baino gehiagotara zabaldu zena, baita Irun eta Iparraldera ere.

Sortzaileek, Felipe Ganboa buru zutela, egin-dako lan bikaina eta Zuzendaritza Batzordeetako kideen eta ordezkarien lana aintzat hartu zituen Nafarroako Gobernuak eta Karlos III.a Noblearen Gurutzea eman zion, "Nafarroako Iparraldeko ia berrogeita hamar herritako adinekoak integratzeko eta dinamizatzeko egin-dako lanagatik".

Batzorde berriaren arabera: "Elkartearren betiko helburuak errespetatuz, eginkizun batzuk berritzen saiatuko gara, aipatutako elkartearren funtzionamendua eta garapena gero eta hobea izan dadin".

## HAUTESKUNDEAK

25 urtez elkarteko karguetarako hauteskunderik egin gabe egon ondoren, 2011n, Felipe Ganboa presidenteak proposatuta, Delegatuen Batzarrak Pedro Bañares presidente berri izendatzea onartu zuen.

Honako hauek osatutako Zuzendaritza Batzorde berria aurkeztu zuen: Doneztebeko Pedro Bañares presidentea, Ezkurra Fernando Etxeberria presidenteordea, Doneztebeko María Isabel Mitxeltorena idazkaria, Iruritako Joxe Oronoz diruzaina, eta batzordekide hauek: Donamariako Juana María Bertiz, Doneztebeko Gema Gamio, Berako José M<sup>a</sup>. Irazoki, Legasako Pakita Mikelarena, Doneztebeko José Luis Legarra. Ondoren, 2012an, sartu zen Elizondoko Rosa Mendiburu eta José Luis Legarra idazkari izendatu zuten María Isabel Mitxeltorenaren ordez.

Horren ondorioz, garai berri bat hasi zen eta aldaketa handiak izan ziren, batez ere teknologia berriak erabiltzeagatik, bazkideen ordainagiri guztiak bankuetan helbideratzea, ikastaro eta hitzaldi ugari antolatzea eta burokraziaz arduratuko zen administrari bat kontratzeagatik.

Administrari horrek erabateko dedikazioa eskatzen zuen urteko milioi erdi euroko aurrekontuaren erronkari aurre egiteko.

Azkenean, urtero bazkide-kopuru zehatza zuzentzea lortu zen. Lehenago, ziurrenik baliabide teknikorik ez zegoelako, akatsak gertatu ziren, aldizkarietan agertzen ziren bezala, urte batzueta 2.600, eta beste batzueta 3.500. Zuzendaritza Batzorde berriaren funtzionamenduaren bigarren urtean 2.629 bazkide zeuden eta 2.985 bazkide 2020an.



2011n izendatutako Zuzendaritza Batzordea



2015ean izendatutako Zuzendaritza Batzordea

2015eko ekainaren 17an, Zuzendaritza Batzorde berria honela eratu zen: José Luis Legarra presidente, Rosa María Bertiz presidenteordea, Fernando Etxeberria idazkaria, Almandozko Juan Isaac Alzugarai idazkariordea, eta Elizondoko María Eugenia Sanzberro diruzaina. Batzordekideak: Rosa Mendiburu, Gema Gamio, Pakita Mikelarena, Elgorriaga José Ignacio Telletxea, eta Leitzako María Lourdes Erbiti ordezkoa.

Zuzendaritza Batzorde berria ekainaren 25ean bildu zen lehen aldiz, lau batzorde erautz: ekonomia, ikastaroak eta hitzaldiak, bidaiaiak, eta mendi irteerak.

Interesgarria da 15.buletinaren lehen orrialdea irakurtzea. Bertan, presidenteak 2016ko jardueren laburpena egiten du eta parte-hartzailleen kopuruak gora egin duela nabarmen-tzen du. 22 bidaia eta 10 mendi irteera egin ziren, 3.500 parte-hartzailerekin; 12 ikastaro eman ziren 470 parte-hartzailerekin eta elikadurari eta herritarren segurtasunari buruzko lau hitzaldi.

Arkupeak-en estatutuetan ezarritako araudia betez, 2019ko ekainaren 17an, Delegatuen Batzarrak presidenteak Zuzendaritza Batzordea aukeratu zituen. Jose Luis Legarrak errepikatu zuen presidente gisa, eta hauek izan ziren Zuzendaritzako gainerako kideak: Rosa María Bertiz presidenteordea, Igantziko Pablo Irastorza idazkaria, Juan Isaac Alzugarai idazkariordea, Gema Gamio diruzaina. Batzordekideak: Lourdes Erbiti, Rosa Mendiburu, Labaiengo Maritxu Telletxea, Pakita Mikelarena; ordezkoa: Leitzako Fermin Azpiroz.

Bi garai horietan, honako hauek nabarmen-tzen dira: inguruko kirodegiekin egindako hitzarmenak, ia hilero egiten diren bidaiaiak, deskontuak dituzten ikastaroak, lehiaketak eta aipatutako batzorde ekonomikoaren aparteko lana diru laguntzak lortzeko, ahalik eta jar-duera gehien eskaini ahal izateko. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik handiena lortu zuen probintziako elkarteetako bat izan zen.



2019an izendatutako Zuzendaritza Batzordea

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak

Aurreko etapako batzorde berberekin jarraitu zuten lanean. Ditzosozko Covid-19 epidemiari aurre egitea egokitu zitzaien eta jarduerak gehienak bertan behera utzi behar izan zituzten, ia bi urtez, 2020an eta 2021ean.

2023ko ekainean egingo dira dagozkion haueskundeak, estatutuetan ezarrita dagoen bezala.

### ALDAKETAK

Zuzendaritza Batzorde berriaren lehen jardueretako bat bere barne egitura berrantolatzea izan zen hiru arlotan: bata ekonomikoa eta bidaietakoa, bestea erakundeen eta komunikabideen harremanetakoa eta hirugarrena gizarte eta kultura-garapenekoa.

1.- Kuoten, bidaien, ikastaroen eta abarren eskuzko kobrantzak kendu ziren, bankuen bidez zuzenean kobratuz. Lehen, bazkideak zuzenean ordaintzen zion herriko delegatuari, honek egoitzan entregatzen zuen eta diruzainak bankura eramatzen zuen.

2.- Web orria eskaini zen hainbat datu konstultatzeko: estatutuak, buletinak, irudiak, organoak, jarduerak eta historia. Ondoren, albisteak eta abisuak arintzeko eta errazteko, whatsapparen erabilera eskaini zen, bazkideak bere mugikorrean elkartearren 618567837 telefonoa sartuz.

3.- Administrari bat kontratatu zen, Garbiñe Azpiroz, kudeaketa burokratiko guztiak egiteaz arduratu zena. Hauek bere lanak:

\* Bazkideen altak eta bajak.

\* Bidaiaik prestatzea, bidaia eta garraio agentziekin eta gidariekin harremanetan jarri eta, ondoren, bazkideei bidaien ordutegien berri ematea.

\* Ikastaroen zerrenda eta hitzaldiak landu, irakasleekin harremanetan jarriz eta, ondoren, ikasleekin ikastaroen lekua eta ordutegia zehaztu.

\* Batzorde ekonomikoarekin lanean aritzea, aurrezki erakundeei eta Nafarroako Gobernuari eskatu beharreko laguntzen txostena eta jarduera guztien gastuak prestatu.

\* Herri bakoitzeko ordezkariekin harremanetan jartzea, omenaldien plangintza egiteko, aldez aurretik haien datuak bildu eta urteko bestaren lekua, mahaikide kopurua eta omendutakoenean detaileak zehaztu.

\* Buletinen edukiak egiteko datuak bildu eta, ondoren, empresa argitaratzailearekin harremanetan jarri, jaso eta ordenatu, bileraren egunean delegatuei emateko.

\* Komunikabideekin harremana, jardueren berri emateko.

\* Gabonetako loteria prestatu delegatuei emateko, bana zezaten.

Zalantzarak gabe, administrariaren kontratazioa Pedro Bañares presidentearen abilezia



Garbiñe Azpiroz administraria

handienetako bat izan zen, Zuzendaritza Batzordeko kideei administrazio-lan asko kendu baitzikien. Gainera, Zuzendaritza Batzordeko kideen laguntzarekin elkartearren jarduera guztien funtzionamendua berritu zuen.

4.- Bazkideei lagunza eskaini zitzaien Espainian eta Frantzian pentsioa lortzeko. Han, hemengo langile askok lan egin zuten, baina ez zuten daturik. Horretarako, Silva jaunaren lagunza bilatu zen Hendaian. Arkupeak-ek omenaldia egin nahi izan zion bere lan bikainagatik. Ez zuen onartu. Kalkuluaren arabera, 4.000 pertsona baino gehiagori egin zizkien gestioak. Bera hil ondoren Magaly Goyerrek ordezkatu zuen, Behobiako bere gestorian.

5.- Opariak eta eskupekoak, egutegia eta egun bateko bidaietan laguntzen zuen anbulantzia kendu ziren. Hirutan bakarrik era-biltzen da anbulantzia: Aralar, Arantzazu eta Bazkidearen eta Omenaldien Egunean.

6.- Seihileko buletinek urteko aldizkaria ordezkatu zuten, eta delegatuek bidaia bakoitzen inprimakiak banatzeko lana ez zuten egin beharrik.

Jarduera guztiak kontsulta daitezke buletinetan eta web orrian: bidaiaik, ikastaroak eta hitzaldiak, oharrak, proiektuak, herriko jaiak, mus txapelketak, gimnasia eguna, omendutakoentzako datuak eta jaiaren datak, urteko dirusarreren eta gastuen balantzea, Zuzendaritza Batzordearen eta Delegatuen Batzarraren erabakiak, eta beste edozein datu interesgarri.

7.- Aurrerago, mendi batzordea sortu zen eta arrakasta handia izan du, mendi irteeretan parte hartzen duten mendizaleen kopurua hirukoitzu egin baita.

8.- Hauek dira egindako erosketak: Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako ordenagailu berri bat; koloretan inprimatzeko fotokopiagailua; bazkideen txartelak egiteko inprimagailu txikia; informatika eskoletarako ordenagailu eramangarri batzuk Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin. Aldi berean, bilera aretoan toki bat prestatu da, podolo-

goak eta masajistak erabil dezaten.

9.- Presidente guztiak Nafarroako Adinekoen Kontseiluko batzarretan hartu dute parte.

## ESTATUTUAK ETA FUNTZIONAMENDUA

Aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko handien garai honetan, Arkupeak-eko arduradun berriak konturatu ziren gizartearen egoera aldakorrarekin bat zezen ideiak aplikatzea beharrezkoa zela.

Hori dela eta, Batzordeko hiru kide estatutuak aztertzeaz eta oinarrizko artikulu batzuk aztertzeaz eta aldatzeaz arduratu ziren. Ondoren, Batzordeko gainerako kideei aurkeztu zitzaiak eta, ondoren, Delegatuen Batzarrari, onar zitzaten.

Presidenteak, Zuzendaritza Batzordeak eta Delegatuen Batzarrak osatutako elkartearren organoek buruzko kapitulua nabamentzen da.

Estatutu berrien arabera, presidenteak, presidenteordeak, idazkariak, idazkarioordeak, diruzainak eta lau kidek osatzen dute Zuzendaritza Batzordea.

“Presidentea lau urterako hautatzen du batzarrak bozketaren bidez eta, gehienez ere, lau urterako berrautatu ahal izango da; beraz, presidentearen karguak zortzi urteko muga izango du”.

“Era berean, Delegatuen Batzarrak Zuzendaritza Batzordea hautatuko du lau urterako eta, epe hori bukatzean, beste hautaketa bat egingo da eta bokalak berriro hautatu ahal izango dira, epeen mugarik gabe”.

Delegatuen irudia nabamentzen da, bere zeregina beharrezkoa baita elkartearren egitura funtzionalean eta herri bakoitzeko kideek aukeratuko dute.

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak

### LAN HITZARMENAK

#### Elgorriagako bainuetxearekin akordioa

2011.urtean sinatu zen akordioa Elgorriagako bainuetxeko zuzendaritzarekin. Bazkideek instalazio termalak eta orokorrak deskontu bereziekin erabili ahal izango dituzte, ibilbide termal bat egin eta masajeak hartzeko %20ko deskontuarekin. Bazkidea abantaila berberak dituen lagunzaile batekin joan daiteke.

### Elizondoko Argibel Optikarekin akordioa

Akordio honen bidez, bazkideek abantaila ezberdinak dituzte bi aukerarekin.

1.-Ikusmenari dagokionez, doako azterketa, begi-tentsioaren kontrola, deskontu handiak dituzten betaurrekoak, etxez etxe doako ikusmen azterketak, betaurrekoen Renove plana hiru urte bete baino lehen, %30eko deskontuarekin, etab.

2.-Entzumenari dagokionez, abantaila hauek izango dituzte: doako entzumen azterketa, 650 eurotik gorako audiofono digitala, bost urteko bermearekin eta lau urteko galera edo guztizko haustura aseguruarekin.

Baldintzak bazkideari eta bikotekideari aplika dakizkieke, bazkide txartela aurkeztuta.

### Hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin eta “la Caixa”-ko Gizarte Ekintzarekin

2014ko ekainaren 9an, Iñigo Alli, Gizarte Politiketako kontseilaria, Cristina Lezaun eta Jasone Zelaieta, “la Caixa”-ko arduradunak, eta Pedro Bañares, elkarteko presidente, bildu ziren Arkupeak-eko egoitzan, Nafarroako Foru Komunitateko adinekoen zentroetan 3.0 Jendea Proiektuak garatzeari atxikitzeko akta sinatzeko.



Pedro Bañares, Arkupeak-eko presidente, Cristina Lezaun, “la Caixa”-ko arduraduna, Iñigo Alli kontseilaria, eta Jasone Zelaieta, “la Caixa”-ko arduraduna, akordio sinatzen



Gizarte Poliketako kontseilaria, “la Caixa”-ko arduradunak eta Arkupeak-eko Zuzendaritza Batzordeko kideak

Programa honen helburua da: “informazioaren teknologiari buruzko prestakuntza jarduerak egitea, zahartze aktiboaren eta voluntariotza programa baten bidez osasuna sustatzea”.

Hitzarmen horretan hainbat akordio zehazten dira, hala nola: hitzarmenaren xedea, alderdien konpromisoak, jarraipen batzordea, hitzarmenaren hedatzea, datuen konfiden-

tzialtasuna eta babesua, eta luza daitekeen urtebeteko iraupena.

Jarduera, ikastaro eta proiektu guztiak doakoak dira eta gai hauei buruzkoak: teknologia berriak, proiektu digitalak, sare sozialak, gizarte partaidetza eta boluntariotza, osasuna eta ongizatea, etab.

Urte batzuetan zehar, “la Caixa”-k doako ikastaroak eskaini ditu, eta horiei buruzko atalean agertzen dira.

## Inguruko kirodegiekin hitzarmena

2018ko irailaren 12an, Arkupeak-ek lankidezta hitzarmen bat sinatu zuen Bartzango Giltxaundi SLU udal enpresarekin; urriaren 1ean, Berako Urdibera SL enpresarekin, gaur egun Sastrako Kirol Zerbitzuak Berako udal enpresarekin; azaroaren 26an, Leitzako Anikote SL udal enpresarekin; abenduaren 4an, Lekunberriko Garapen Elkarteak SL udal enpresarekin; eta abenduaren 19an, Lesakako Oilartegi SLU udal enpresarekin.

Hitzarmen guztietai, kirodegiek adierazi zuten beren helburuen artean jarduera fisikoak eta kirola sustatzea zegoela eta Arkupeak-ek, berriz, hirugarren adinekoen jarduera fisikoa eta kirola sustatzea. Horregatik, haietan guztiek Arkupeak-eko baziideek kirodegietako jarduera fisiko eta kiroletan parte hartu ahal izango zutela adostu zen.

Hitzarmena urterokoa zen, baina luza zitekeen, bi alderdiak ados jarrita.

Buletin desberdinatan bost kirodegiek es-kaintzen dituzten jarduerak jasotzen dira.

Arkupeak-ek deskontu hauek eskaini zizkien baziideei: abonu-kuotei edo kirodegietako matrikulei dagokienez hasiera batean ehuneko 50-a eta gero ehuneko 20-a eta jarduerei dagokienez ehuneko 40-a

Zehazki, 2022an, hauek izan ziren kirodegiek proposatutako jarduerak:

Beran: pilates, spinning, helduentzako gimnasia, gap, ziklo indoor, fitnes, martxa nordikoa. Donezteben: yoga, luzaketak eta dantza. Elizondon: aquagym, berreziketa posturala, pilates, yoga, helduentzako gimnasia eta igeriketa. Leitzan: yoga, luzaketak, taichi, ziklo indoor, hipopresiboak, zumba eta gimnasia. Lekunberrin: igeriketa. Lesakan: aquagym, pilates, spinning eta igeriketa.

**Kirodegia - Polideportivos**

**-40%** Taldeko jardueretan.  
En las actividades de grupo.    **-20%** Kuota edo bono eta matrikulatetan.  
En cuotas o bonos y matrículas.

<p><b>Bera</b></p> <p>Pilates Spinning Helduentzako gimnasia Gimnasia para adultos Gap</p>	<p>Ziklo Indoor/Ciclo Indoor Fitness Martxa nordikoa/Marcha nórdica</p> 
<p><b>Doneztebe</b></p> <p>Yoga Luzaketak / Estiramientos Dantza / Baile</p> 	
<p><b>Elizondo</b></p> <p>Aquagym Gorputz jarras landu / Reeducación postural Pilates Yoga Helduentzako gimnasia / Gimnasia para adultos Igeriketa / Natación</p> 	
<p><b>Leitza</b></p> <p>Yoga Luzaketak / Estiramientos Taichi Ziklo Indoor / Ciclo Indoor Hipopresiboak / Hipopresivos</p> 	
<p><b>Lekunberri</b></p> <p>Igeriketa / Natación</p> 	
<p><b>Lesaka</b></p> <p>Aquagym Pilates Spinning Igeriketa / Natación</p> 	

## IKASTAROAK ETA HITZALDIAK

2012.urterako arte, Arkupeak elkartearren jarduera nagusiak: bidaiaik, omenaldiak, herriko jaiak, mus txapelketak eta ikastaro batzuk antolatzen ziren.

Presidentea aldatuta, Batzorde berriak, gehiago inplikatzea nahi izan zuen kultura, aisialdia eta kirol jardueretan, mendi irteera eta kiroldegietan.

12 urte hauetan emandako hitzaldiak eta ikastaroak asko izan dira. Hemen laburtzen dira euskaraz eta gaztelaniaz.

KULTUR JARDUERAK EUSKARAZ		ACTIVIDADES CULTURALES GAZTELANIAZ
<b>Frantsesa</b>		Francés
<b>Mugikorraren erabilera</b>		<i>Uso del móvil</i>
<b>Pintura</b>		<i>Pintura</i>
<b>Dietetika eta nutrizioa</b>		<i>Dietética y nutrición</i>
<b>Dantza</b>		<i>Baile</i>
<b>Egur zizalketa</b>		<i>Talla de madera</i>
<b>Lorezaintza</b>		<i>Jardinería</i>
<b>Afektibilitatea eta sexualitatea</b>		<i>Afectividad y sexualidad</i>
<b>Bankuaren harremanak on-line</b>		<i>Relación con el banco on-line</i>
<b>Sare sozialak</b>		<i>Redes sociales</i>
<b>Euskara</b>		<i>Euskara</i>
<b>Pirograbatua</b>		<i>Pirograbado</i>
<b>Memoria tайлerra</b>		<i>Taller de memoria</i>
<b>Informatika: maila desberdinak</b>		<i>Informática: diversos niveles</i>
<b>Fitosanitarioa</b>		<i>Fitosanitario</i>
<b>Autoestima hobetu</b>		<i>Mejorar la autoestima</i>
<b>Garmin explorer</b>		<i>Garmin explorer</i>
<b>Inausketa</b>		<i>Poda</i>
<b>Elikadura tайлerra</b>		<i>Taller de alimentación</i>
<b>Dokumentuak sortu eta diseinatu</b>		<i>Crear y diseñar documentos</i>
<b>Argazki erretokea</b>		<i>Retoque fotográfico</i>
<b>Jostunak</b>		<i>Labores</i>
<b>Kontserben sekretuak</b>		<i>Secretos de las conservas</i>
<b>Landare sendagarriak</b>		<i>Plantas medicinales</i>
<b>Sukaldaritzia</b>		<i>Cocina</i>
<b>JARDUERA FISIKOAK</b>		ACTIVIDADES FÍSICAS
<b>Yoga</b>		<i>Yoga</i>
<b>Pilates</b>		<i>Pilates</i>
<b>Hipopresiboak</b>		<i>Hipopresibos</i>
<b>Aquagym</b>		<i>Aquagym</i>
<b>Gimnasia eta luzaketak</b>		<i>Gimnasia y estiramientos</i>
<b>Taichi</b>		<i>Taichi</i>

Nafarroako Gobernuarekin eta Caixakoekin hitzarmena sinatuta, honako ikastaro eta tailerrak egin ziren; denak dohainik.

Hemen ikastaro eta tailerrak:

1.- Ongi izate eta osasunerako tailerrak: mina eta bizitza; zure burua treba ezazu; irrifar batekin esnatu; entrena zaitez; aktiba zaitez.

2.- Komunikazioa eta informatika tailerrak: teknologia berriei hurbiltasuna; proiektu digitalak I eta II; sarea gure eguneroakoan; sare sozialak.

Beste ikastaro batzuk: zure burua landu; ongi bizi, ongi sentitu; tratu ona, jende adinduaren eskubideak; bizitza, ni ezagutzea; boluntariotza eta gizarte partaidetza; nik nahi dudan bezala bizi; positiboan bizi; gure bizitza berreskuratzea.

Ikastaroak hasieran herri hauetan eman ziren: Doneztebe, Leitza, Bera eta Elizondon, baina gero beste herri askotan: Arantza, Sunbillako, Irurita, Oronoz-Mugairi, Donamaria, Lesaka, Labaien, Amaiur, eta Urdazubi.

Ikastaroen arrakasta ikusirik, Arkupeak-eko Zuzendaritza Batzordeak Adinekoentzako Unibertsitatea martxan jartzea nahi izan zuen. Jakinerazi zitzaien Baztango talde batetik lehenago ideia hori praktikan jartzea nahi izan zuela, baina porrot egin zuela babes faltagatik.

Hala ere, lehenengo urratsak ematea erabaki zuten eta Zuzendaritza Batzordeko bi kide, Pedro Bañares eta Jose Mari Irazoki, Agoitzera joan ziren, non Francisco Yndurain Adinekoentzako Unibertsitatea izenarekin oso ondo funtzionatzen zuen.

Han lortutako informazioarekin matrikula ireki zen eta bertan oso gai interesgarriak eskaientzen ziren: artearen historiarako sarrera, kalkulu-orriak dituen matematika, frantsesa, erretiratuak eta zaintzaileak, tokiko historiarenen tailerra, emozionalki inteligentea al naiz? etab.

Zoritzarrez, matrikulatuen kopurua hain txikia izan zenez, ezeztaratu behar izan zen. Dirudienez, “Unibertsitate” izenburuak errespetu edo bildur pixka bat ematen du.



Hainbat ikastaro

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak

### HITZALDIAK

EUSKARAZ	CASTELLANO
<b>Elikadura egokia jubilatuentzat</b>	<i>Alimentación adecuada para lo/as jubilado/as</i>
<b>Iktus gaitza</b>	<i>Iktus</i>
<b>Nor bakoitzen eta etxeko segurtasunerako neurria</b>	<i>Medios para defender la seguridad personal y del hogar</i>
<b>Pentsioen egoera</b>	<i>Situación actual de las pensiones</i>
<b>Bizi testamentuak, heriotza duina eta borondatezko aurrerapenak</b>	<i>Testamento vital, muerte digna y voluntades anticipadas</i>
<b>Jubilatuak eta zaintzaileak</b>	<i>Jubilados y cuidadores</i>
<b>Argindarra, gasa eta telefono kontratuak</b>	<i>Crontratos de luz, gas y teléfono</i>
<b>Nola erabili liburu elektronikoa eta tableta</b>	<i>Cómo manejar el libro electrónico y la Tablet</i>
<b>Alzheimer eta iktusen ondorioak</b>	<i>Alzheimer y efectos del Iktus</i>
<b>Jubilatu naiz eta orain zer?</b>	<i>Me he jubilado ¿y ahora qué?</i>
<b>Adinekoen egoitza, pisu tutelatuak eta eguneko zentroak</b>	<i>Residencias de mayores, pisos tutelados y centros de mayores</i>



Hitzaldia Beran



Hitzaldia Lietzan

## BIDAIAK

Hemen laburbiltzen ditugu 2011 eta 2022 artean egindako bidaiaiak, egun bakarreakoak eta beste batzuetakoak bereiziz. Errepikatuak ere badira, eta batzuk urtero.

## Egun bateko bidaiaiak

Javier, Lourdes, Aralar, Arantzazu, Lezo, Lizarra eta Lodosa, Iruña, Bilbo, Bizkaiko Kostaldea, Donostia, Añanako Gatzagak eta Gasteiz, Zarautz, Pasaia, Getaria-Zarautz, Tolosa-Urnieta, Zumarragako feria, Ordiziako merkatua, Bordeleko feria, mus txapelketaren finala Hondonribian, Urnietako Oinanume sagardotegia, Aginagako sagardotegia, Monjardin Gaztelua, Olite, Lacturale Etxeberri, Larun, besta Oronoz-Mugairin Erramun Martikorenarekin, Euskal Kantuen Eguna Dantxarinean, Urdazubiko eta Sarako kobazuloak, Doneztebeko feria, Arguedaseko Sendaviva, Bardeak, Tarazona-Tudela, Zaragoza, Monasterio de Piedra, Biarritz-Donibane Lohizune, Gavarnie-Tourmalet, Marques de Riscal-El Ciego, Pradejón, Santo Domingo de la Calzada.

## Egun batzuetako bidaiaiak

Gandia eta Benidorm, Puente Viesgo, Aragoiko Pirinioak, Nafarroako Pirinioak, Madrid-Aranjuez-Toledo-Segovia, El Escorial monasteriora, Avila-Segovia-Salamanca, Cádiz eta Herri Zuriak, Cáceres-Santa María Portu-Chipiona-Arcos de la Frontera-Medina-Sidonia, Andaluzia, Kantabria-Asturias, Kanaria Handia, Lanzarote, Tenerife, Valentzia, Katalunia (Sabadell-Bartzelona-Carcasona-Figueras-Montserrat), Galiziako Goi-itsasadarra, Teruel - Albarracin - Cuenca, Madrid-Toledo, Santander eta Cabarceno, Valentzia-Failak, Katalunia, Mallorca, Aragoi, Andorra, Carlomagnoren Bidea, Perú, Hiri Imperialak, Argentina, Kroazia, Herrialde Baltikoak, Mediterraneoko Itsas-ibilaldia, Frantzia, Italia, Portugal.

Javier



# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak



Ávila



Teruel



Fátima

## ARGIBIDEAK

Arkupeak-en historiaren aurreko kapituluan adierazi bezala, urtero errepikatu dira: Javier-Lourdes-Aralar-Aranzazu-Lezo bidaia erlijiosoak; mus txapelketak, gimnasia eguna, bazkidearen eguna eta omenaldiak, Lodosa-Lizarra eta Pirinioak.

## ZENBAIT BIDAIEN XEHETASUNAK

### Carlomagnoren Bidea

2013ko azaroaren 11tik 18ra 100 bazkidek toki hauetan ibili ziren:

Bruselas, Belgikako hiriburua eta Europar Batasuneko egoitza administratiboa. Brujas Mendebaldeko Flandes-ko hiriburua eta Iparraldeko Venezia izenez ezagutzen da kanal ugariengatik. Gante, Ekiadego Flandes-ko hiriburua. Amberes eta Lieja. Alemaniako Akisgran, Colonia, Frankfurt, Treveris. Luxemburgora ere joan ziren. Programa 2013ko 7. buletinean.

## Perú

Azaroaren 10etik 22ra, 2013an, Perura joan ziren 11 bazkide, eta toki hauetan ibili ziren: Lima hiriburua, Arequipa, Cañón del Colca, Puno, Cuzco, Inken Haran Sakratua Andean, Aguas Calientes eta Machu Picchu. Programa 2013ko 8. buletinean.

## Hiri Imperialak

Irailaren 8titik 15era eta 9tik 16ra, 2014an, 95 bazkide joan ziren bi taldetan banaturik 3 hiri imperialak bisitatzen: Praga, Txekiar Errepublikako hiriburua. Budapest, Hungariako hiriburua, eta Viena, Austriako hiriburua. Programa 2014ko 2. seihileko 10. buletinean.

## Argentina

2013ko azaroaren 21etik abenduaren 6ra, 35 bazkide Argentinara joan ziren. Ezagunak diren Peninsula Valdes, bertako pingüinoak, itsas txakurak, baleak eta paisaje ederra ikusiz. Ushuaia, etb-ko “el conquis” saioan hainbestetan ikusi dugun faroa. El Calafate hazten doan herria. Hiru glaziar ikusi genituen, Upsala, Spegazzini eta Perito Moreno. Han bizi genuena adierazteko hitzik ez dago. Zoragarria.

Barilochetik Iguazura joan ginen, hau ezin da deskribatu, bertara joan behar da ikusteko. Ur jauzi izugarriak, soinua, lantxetako abentura, non urjauzietaraino eramatzen zaituzten, benetan, sinesteko ikusi beharrekoa. Eta amaitzeko, Buenos Aires, bertako Etxe Arrosa, Maiatzeko Plaza, Obeliscoa, Bonbonera, Caminito auzoa, eta abar.

Agurra emateko, tango dantzaren pausu batzuk erakutsiz afaria egin genuen. Azkeneko egunean, Gaucha jai batera joan ginen, bazkari eder bat eginez eta bazkalondoan tango batzuk dantzatzuz. Arratsaldez, oso gustura, etxera itzulera, egun ahatzezin batzuk pasa ondoren.

Egia esan, oso bidaia zoragarria izan dugu. Hegaldi asko (9), baina egun gutxitan asko ikusteko era bakarra da. Zerbait txarra esateagatik, dirudienez “propinak” derrigorrezkoak direla.

Programa, 2014ko bigarren seihileko 10. buletinean.

Kronika, 2015eko lehen seihileko 11. Buletinetik hartua.

## Kroazia

2015eko irailaren 2tik 9ra 96 bazkidek egin zuten egan Kroaziara, eta leku hauek bisitatu zitzuten: Zagreb, Kroaziako hiriburua. Plitviceko Lakuen parke nazionala. Istriako penintsula (Opatija, Pula, Porec, Rovini), Zadar, Sibenik, Trogir, Split, Cavtat, Dubrovnik, Montenegroko penintsula balkaniarra (Perast eta Kotor). Programa 2015eko 2. Seihileko 12. buletinean.

## Herrialde Baltikoak

Irailaren 7tik 14ra, 2016an, 50 bazkide joan ziren herrialde baltikoetara. Hiri eta toki hauek bisitatu zituzten: Vilnius, Lituaniako hiriburua. Letoniara zihozzenean Gurutzeen muino misteriotsuan gelditu ziren, gero Riga aldera, Letoniako hiriburura jarraitzen. Gainera bisitatu zituzten Letoniako Sigulda, Turaida, Gaujako Parke Nazionala eta Gutmanisko koba-zuloa. Gero abiatu ziren Tallin aldera, Estoniako hiriburua, eta Lahemaako parke nazionala ere ikusi zuten. Programa 1016ko 2. seihileko 14. Buletinean.

## Itsas ibilaldia Mediterraneoan

Irailaren 17an, 2018an, 61 bazkide goizeko 4:00etan autobusez Bartzelona aldera abiatu ziren, eguerdian itsasontzian sartu, eta zortzi egunez ibilaldi eder bat egiteko asmoz. Horrela egun pare bat itsasoan ibilita Napolesen gelditu ziren, eta nahi zuenak inguruko herriak ikusteko aukera izan zuen, batez ere Ponpeia.

Hurrengo egunean Civitavecchia iritsi zen itsasontzia eta Erroman egun osoz gozatu zuten. Gero berriz Livorno, Florentzia eta Pisako kaleetan ere ibili ziren eta, azkenik, Frantzia aldean Montecarlo eta Languedoc bezalako lekuak ere zeharkatu zituzten.

Bartzelona izan zen berriz azkeneko helmuaga. Eguerdian Castejonen baziak zuten eta oso pozik gelditu ziren egindako bidaiaarekin.

Programa, 2014ko bigarren seihileko 10. buletinean.

Kronika, 2015eko lehen seihileko 11. Buletinetik hartua.

## Beste leku batzuk

Frantziara 2012an (Paris eta abar) eta 2018an (Alpeak eta kostalde urdina). Portugalera 2017an eta 2022an. Italiara 2019an (Venezia eta Dolomitak).

## MENDI IRTEERAK

Arkupeak-en historiaren 1.kapituluan elkarrearen mendi irteeren garapena jasotzen da. Hauek 1995ean Donejakuren oinezko bidearen antolakuntzarekin hasi ziren eta urte batzutara beste lau egin ziren.

2000.urtean, Arkupeak-ek berriro antolatu zuen bidea, baina Baztan aldera mugatua, ondoren Sakanatik jarraituz Arabako mugairano 25 bazkidek egin zuten bidea.

Horrela animaturik, Santiago arteko ibilbide



Otsondo



Ezkaurre

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak



Auza

osoa egin nahi izan zuten, baina ardunadunek ez zuten egokitzat jo, aurretik ere antolatu zutelako eta ez zuten errepikatzerik nahi.

Horregatik, Baztango bidean parte hartu zuenek “Goiz Mendi” taldea sortu zuten; honek bide osoa egin zuen, gero Iparraldeko bidea eta hainbat urtetan hilera mendi itzuliak egiten zituzten eta Pirinioetara ere urtean behin.

2011. urtean, Zuzendari-Batzorde berriari, jarduera fisikoa egitea oso interesgarria iruditu zitzaion eta, horregatik, mendi-taldea onartzea edo sortzea erabaki zuen.

Horrela hasi ziren hileroko inguruetaako mendietara eta Pirinioetarako irteerak. Hasieran 15 bazkidek parte hartzen zuten, baina taldea zabalduz joan zen, 60ra iritsi arte.

2019ko uztailaren 3an lehen aldiz bildu zen mendi-batzorde berria, honela osatuz, Zuzendari-Batzordeko lau kiderek: Jose Luis Legarra, Gema Gamio, Fernando Etxeberria eta Juan Isaac Alzugarai eta beste lau mendizalerekin: Teresita Nazabal, Ramon Tapia, Pablo Irastorza eta Jose Mari Zabaleta.

Batzorde horrek, mendizale guztien laguntzarekin, mendi-irteeren antolakuntzaren ardura hartu zuen. Laguntzaileek ibilbideak prestatzen zituzten, bere ingurua eta ibilbideko azpiegitura kontutan harturik, baita irteeraren ordutegia eta ondorengo bazkaria ere.

Batzordeak, haien kontsultatu ondoren eta urtea bukatu aurretik, irteeren plana, da-



Santiagoko bidea

tak, ordutegiak eta tokiak aurkezten zituen.

Horretarako, watsapp talde bat sortu zen mendiko gaiei buruzko informazio ofizialera-ko.

Geroago, Batzordea berritu zen Zuzendari-Batzordeko hiru kiderek: Pablo Irastorza (taldearen koordinatzailea), Juan Isaak Alzugarai, Gema Gamio eta hiru mendizale: Teresita Nazabal, Jose Mari Zabaleta eta Ramon Tapia. Antolaketa orokorraz arduratzen ziren.

Zoritzarrean, pandemia garaian hainbat hilebetalen ez zen mendi irteerarik antolatu, baina egoera garbitzen hasi zenean, berriz animatu eta irteera aunitz egin dituzte, adibidez Irun, Etxalar, Donamaria, Hondarribia, Bertiz, Berastegi, Aralar, Ezkaurre (Pirinioetan), Arantza eta Urdazubira.

Mendi-irteeretan parte hartzen duten lagun kopuru haundien argazkiak ttipi-ttapan ikus-tea pozgarria da.

## HERRIKO BESTAK ETA MUS TXAPELKETAK

Arkupeak sortu zenetik, herriko jaiak eta mus txapelketak urtero ospatu izan dira.

Urtearen lehenengo hilabeteetan ospaten dira herriko jaiak. Mezarekin hasten dira urtean hildakoak oroituz. Gero bazkideak jate-txean elkartzen dira menú on bat dastatzeko asmoz. Ondoren sariak banatzen zaizkie mus-txapelketa irabazi dutenei. Herri batzuetan musikarekin eta dantzarekin bukatzen dute jaia.

Mus-txapelken finalak martxoan edo apirilean antolatzen dira. Herriko txapeldunek, bigarrenek eta hirugarrenek hartzen dute parte, denetara 32 bikote.

Antzina, Hondarribian ospaten ziren, noiz-bait Elgorriagako bainuetxean eta orain Doneztebeko Santamaria jatetxean. Nahi duten bazkide guztiak etor daitezke.

Muslariek, goizeko 9,30etan, bikoteen zozketa egin ondoren, hasten dira "lanean". 11:00k aldera, zerbait dastatzeko atsedena hartzen da eta ordu biak aldera bukatzen dira partidak. Bazkalondoan sariak banatzen zaizkie txapeldunei, bigarrenei, eta baita hirugarrenei ere.



Herriko bestak Arantzan



Herriko bestak Ezkurran



Herriko mus txapelketa Donamarian



Herriko mus finala Donezteben

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak

### GIMNASIA

Gimnasia eta yoga ikastaroak arrakasta handia izan zuten Arkupeak-en hasieratik.

Parte hartzale ugari izan zirenez, 1995ean Iruñeko Anaitasuna polikiroldegia aukeratu behar izan zen, 300 gimnastek 375 bazkideen aurrean beren trebetasunak edo abileziak erakuts zitzaten.

Aurreko atalean, 19 herrian ematen ziren yoga ikastaroen historia laburra egin da.

Pixkanaka-pixkanaka partaideen eta herrien kopurua murritzuz joan zen.

Arrazoia, dirudienez, jendea zahartuz joan dela eta gazteenek nahiago dute beste jarduera ludiko batzuetan parte hartu, hala nola, pilates, igeriketa, aquagym eta mendi-irtee-retan.

Patxi Txokarrok, hainbat herrian yoga eskola ematen jarraitzen duenak, hau adierazten du, alegia, gimnasiak, ariketaz gain, topagune bat delako, ongizatea eskaintzen duela.

Dioenez, klaseak ordubetekoak dira eta bertan hainbat erlaxazio une izaten dira. “asko praktikatzen dugu hori eta, horregatik, normalki etortzen direnak lasaiago ateratzen dira”.

Gimnasia eguneko jaia jarduera finkoenetako bat da eta azkenengo urteetan Doneztebeko polikiroldegiaren eskaintzen da erakustaldia.

Ekitaldia musika eta parte-hartzailen desfilearekin hasten da. Ariketa leunak egiten dira hainbat luzaketarekin konbinatuta eta musika eta dantzarekin bukatzen da.

Ondoren Santamaria jatetxean elkartzen dira bazkaltzeko eta berriz dantzarekin gozatzen jarraituz.



Gimnasiaren eguna Donezteben

## JUBIOTEKAK

15. buletinean, Jose Luis Legarra presidenteak jakinarazi zuen inguruan hainbat jubiloteka sortzen ari zirela eta bazkideei mesede egingo zien gizarte-ekintza interesgarria zela-eta, Arkupeak-ek langundu nahi zielat.

23.buletinean, Amaia Iriondok, jubiloteken arduradunak, jakinarazi zuen: “jubiloteken bultzataileak gure adinekoak maitasunez, errespetoz eta konfiantzaz zaintzeko borondatea duen profesional talde bat gara.”

Beraien helburuak azaldu zituen: “eta bakardadea ilusioz eta lagunartean arinduz gero? Nola? Gure jubilotekara etorriz, gure solasaldietan parte hartuz, iraganeko lagunak aurkituz, gimnasia fisikoa eta mentala eginez, eskulanan landuz eta jolastuz”.

Arkupeak-ek lankidetzan aritzea erabaki zuen, elkartearen bazkide ugari jubilotekara joaten zirelako eta begiraleek egindako lana oso positiboa zelako.

Garrantzi haundiko erabakia hau izan zen: bertaratzeko baliabiderik ez zutenei garraio-zerbitzua eskaintzen zitzainen.

Hasieran “Harremanak” jubilatuuen elkarteark antolatu zituen jubilotekak Urdazubin eta Zugarramurdin, ata gero zabaldu ziren Baztanera (Amairu, Arizkun, Elizondo, Erratzu eta Iruritara).

2022. urtean, jubilotekako bazkidearen eguna ospatu zen Urdazubin, 6 urteko jardueraen erakusketarekin eta talo dastaketa, kantu eta dantzarekin.

Hainbat udalek eta osasun etxek ere herri batzuetan ezarri zituzten jubilotekak: Bera, Le- saka, Zubieta eta Ezkurra.

“La Caixa” Gizarte Ekintzak 8.000,00 euroko laguntza eman zuen urte bakoitzeko 2017an, 2018an eta 2019an, Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztango jubiloteketarako.



Jubiloteka Urdazubin

## LEHIAKETAK ETA ERAKUSKETAK

Bazkideek, beren ezagutzak eta abilezia edo trebetasunak erakutsiz, kultur gaietan parte har zezaten, Arkupeak elkartek bi jarduera hauek bultzatu zituen: lehiaketak eta erakusketak.

2016 urteaz geroztik hiru lehiaketa antolatu ziren:

1.- Literarioak, idatzitako lan onenak saritza zen helburua. Egile bakoitzak lan bat bakarrik aurkeztu zezakeen, euskaraz zein gaztelaniaz, prosaz edo poesiaz.

2.- Argazkigintzakoak, argazkigintza sormena sustatu nahi zuen, baina beti elkartearren es- kualdeko gaiekin.

3.- Marrazketa eta pintura lehiaketaren helburua haren praktika sustatzea zen, elkartearren eskualdeko gaiak aurkeztuz.

Sariak, bazkidearen egunean banatzen dira eta dagokien buletinean argitaratu.

9. buletinean, bazkideen lanen erakusketarako proiektu berria aurkeztu zen: zura, pintura eta marrazketakoak.

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak



Erakusketa Donezteben



Erakusketa Elizondon

Artista posibleen berri zehatzik ez zutenez, interesa zuten artistei elkartarekin harremanetan jartzeko eskatzen zitzaien. Lehen erakusketa Bertizko Jaurerrian egitea zen asmoa.

Gero, urtero, saritutako lan guztiak Elizondoko eta Doneztebeko azoketan eta Leitzako talo egunean erakutsi izan dira.

## EKONOMIA BATZORDEA. DIRU KONTUAK

2011ko uztailaren 1ean, Pedro Bañares Arpupeak-eko presidente izendatu ondoren, Zuzendaritza-Batzorde berria martxan jarri zen eta lehenengo bileran hainbat komisio sortzea erabaki zen: ekonomia, bidaia, ikastaroak, eta abar.

Agerikoa denez, Ekonomia-Batzordea, fun-

tzioneamendu on baterako eta ekintza guztien garapenerako, zalantzarako, garrantzitsuena da.

Hori dela-eta, komisio horrek mota guztiak laguntzak bilatzeari ekin zion, bai administrazioan, bai aurrezki erakundeetan, baliabide propioak, bazkideen kuotak eta bidaien eta ikastaroen kobrantzak ahaztu gabe.

Hona hemen, laburbilduta, 2012tik 2022ra bittarteko kontuak:

URTEA / AÑO	SARRERAK INGRESOS	GASTUAK GASTOS	ONDORIOAK RESULTADOS
2012	443.022,00	441.812,90	+1.209,10
2013	492.243,09	490.952,01	+1.291,08
2014	616.387,19	615.710,05	+677,14
2015	570.398,46	570.035,94	+362,52
2016	462.868,06	462.255,93	+612,13
2017	490.893,97	489.074,71	+1.819,26
2018	579.914,18	578.944,06	+970,12
2019	595.711,19	594.507,13	+1.204,06
2020	182.204,28	181.449,51	+754,77
2021	250.220,70	249.014,15	+1.206,55
2022	541.483,01	539.089,35	+2.393,66

## Argibideak

1.- Diru sarreren atalean, honako hauek lagundu dute: Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxa Fundazioak, “la Caixa”-k, bazkideen kuotek, bidaien eta ikastaroen sarrerek, loteriak, eta euskaraz egindiko literatura lehiaketetarako udalen dirulaguntzak.

Zoritzarrez, Nafarroako Kutxa Fundazioak 2021eko laguntzen deialdia, momentuz, bertan behera gelditzen zela jakinarazi zuen, bere edukia berrikusi behar baitzuten “bizi dugun egoera aldakorra” kontutan hartuz. Aitzakia zirudien.

2.- Gastuak honako hauei dagozkie: langileei, funtzionamenduari eta jarduerei.

3.- Normalean, urteko balantzea 400-600 mila euro ingurukoa izaten da, 2020an eta 2021ean izan ezik, horietan jarduera gehienak eten behar izan baitziren Covid 19aren pandemia zela eta.

4.- 1990eko eta 2000ko hamarkadetan dirulaguntzak urteko aurrekontuaren ehuneko 50 izatera iritsi ziren, baina nabarmen jaitsi ziren 2010eko hamarkadan. Dirulaguntzarik handiena ehuneko 12 ingurukoa izan da, baina, hala ere, azken hamarkada honetan gastuak eta sarrerak orekatu ahal izan dira Batzorde Ekonomikoaren ahaleginei esker, eta jardueren eta parte-hartzaileen kopurua oso positiboztat jotzen ahal da.

5.- Bazkide baten galderari erantzunez, Pedro Bañaresek 2.boletinean Arkupeak-eko

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak

karguek zer kobratzen duten argitu hehar izan zuen.

“Zuk presidente bezala gehiako kobratuko duzu, baina Zuzendaritza Batzordekoek zenbat kobratzen dute?”.

Elkartearren estatutuek kargu guztien dedikazioa doaneko dela agintzen dute. Horregatik, Zuzendaritza-Batzordekoek eta delegatuek ez dute inolako diru kopururik jasotzen bere lanagatik.

Jakina, bileretara bertaratzeko edo buletinak auzoetan edo baserriean banatzeko joan-etorriean autoak sortutako gastuak, fakturak aurkeztuta, ordaindu egiten dira.

### O M E N A L D I A K

Arkupeak sortu zenetik, gehien zaindu den alderdietako bat jarduera desberdinak garatzen modu batean edo bestean lagundi duten guztiak omentzea izan da; baita ehun urte, laurogeita bost urte, urrezko eta diamantezko ezkontzak betetzen zitzatenak ere, eta hildako bazkideak urtero gogoratzea.

Hori dela eta, urtean behin, bazkidearen egunean hain zuzen ere, hildako bazkideen alde meza ospatzen da haien izena aipatuz eta mezaren ondoren omendutakoei opariak eskaizten zaizkie, eguna bazkari eta dantzarekin bukatzen.

Hona hemen, 2011. urtetik aurrera, omendutakoek kopurua:

URTEA / AÑO	Ehun urtetik gorakoak	Diamantezko ezteiak	Urrezko ezteiak	85 urtetik gorakoak
2011	x	x	7	26
2012	x	x	11	28
2013	x	2	7	38
2014	x	1	11	32
2015	x	x	11	37
2016	x	3	14	25
2017*	x	1	15	36
2018	x	2	10	29
2019	x	2	14	38
2020	x	3	17	29
2021	x	2	21	28
2022	2	2	16	25

\* Urte honetan, modu berezian gogoratu ziren 85 urte betetzen zitzaten Felipe Ganboa presidente ohia eta elkartearren fundatzaileetako bat eta Isabel Mitxeltorena idazkari ohia.

Hauek izan dira aipamen berezia merezi duten ehun urte bete zituztenak edo mendeurrenakin: Igantziko Teresa Etxebeste Zozaya, Sunbillako Regina Ibarra Espelosin, Manuel Arregi Goñi, Ignacia Etxeberria Telletxea, Lesakako Carolina Maia Bergara, Tomasa Gorrestarazu, Etxalarko Asun Elizalde Danboriena eta Julia Elizalde Danboriena (ahizpak), Sunbillako Candida Mitxelena Jorajuria, Gazteluko Isabel Arregi eta Berako Modesta Huarte Iñarra.

Laburbilduz, hauek dira omenduak:

11 ehun urtekoak, 18 diamantezko ezkontza-koak, 154 urrezko ezkontzakoak, eta 85 urtekoak 371.



D. Larretxea, J. Retegi, J.I. Retegi, M. Mindegia,  
E. Pierola, I. Perurena



Doneztebeko eliza

### BOLUNTARIOTZA

Ixidro Herguedas, Bidelagun elkarteko koordinatzailea, Arkupeak-eko bazkideei zuzendu zitzaien 6.buletinean elkartearren laguntza eskatuz.

Honela zuzendu zen: “Boluntariotza, ausartzen zara?

“Guztiok dauzkagu sentimendu solidarioak, familiak erakutsi dizkigun giza baloreak. Guztiok, bizitzako momenturen batean esperientzia erabakigarriren aurrean interpelatuta sentitu izan gara, bizilagun, lagun, ezagun edo inguruko norbaitek bizitzen duen egoera gororra ikusita.

Egoera hori ikusita, ziur, ondorengo galdera egin diogula geure buruari: Zer egin dezaket nik? Ba, hau da galdera hori berriro egiteko momentua: ausartuko al zara besteengatik zerbait egitera?”.

Arkupeak-ek eta Bidelaguneek elkarrekin bazkideen arteko boluntariotza bultzatu nahi zuten.

Aurretik ere elkartera jo zuen elkarren arteko jarduera plana aurkezteria, baina garai hartako arduradunek borondatezko lanak egiten zirela adierazi zioten, hala nola, gaixoak bisitatu, Gabonetan batez ere, egoitzetara eraman eta abar, eta konpromiso gehiago hartzea ez zutela beharrezkoa ikusten.

Gerora, berarekin harremanetan jarrita, zertan lagundu zitekeen agertzeko eskatu zitzaison.

Buletinean zehaztu zuen: “Lesakan, Beran, Elizondon eskualdeko egoitzetan bertako helduei laguntzeko zeure burua eskaini, medikuarengana, dentistarengana joan behar dutenean lagundu; baita erosketak egiten, ateraldi bat egitera edo kafe hartzera ere.

Nahi baduzu, gaztelania, euskara edo frantseseko ikastaroak eman, edo haurrei bere ikasketetan lagundu, edo elikagaien banaketan. Agian, gaixoei kanpoko kontsultetara, Iruñeko edo Irungo hospitalera joan behar

dutenean lagundu, edo hospitalizatuta eta familiariik ez dutenei bisita bat egin.

Zuk dakizuna eta zure abileziak eskaini ditza-kezu beste persona askori on egiteko. Pentsatu. Jarri gurekin harremanetan. Ausartzen al zara?”.

Arkupeak-ek delegatuei eskatu zien Ixidrok adierazitako zereginetakoren batean interesa zuten bazkideekin harremanetan jartzeko. Horrela gertatu zen, batez ere pandemia garaian.

### ARKUPEAK PENSIONISTEKIN

Felipe Ganboa eta haren laguntzaileen borroka nagusienetako bat pentsiodunen jubilazio duina lortzea izan zen, eta baita osasun arazoak edo ekonomikoak zituztenak, beren etxeetan, eguneko zentroetan edo egoitzetan zainduak izateko aukera ere.

Aldi berean, Arkupeak-ek pisu bat erosi zuen Donezteben, larrialdi ekonomikoak jasatzen zituzten pertsonak edo familiak babesteko.

Arkupeak-ek Nafarroako pensionisten mugimenduarekin bat egin zuen hau eskatu: “Mendekotasuna duten pertsonak bere etxeetan zaindu, zaintzaile gehienen lana duindu, egoitzetako giza zerbitzu eskuragarriak eskaini, kalitatezko eta doaneko medi-kuntza, eta bizi mailarekin bat datozen pentsio duinak batez ere.

“Milaka jubilatuk pentsio baxuak izateaz ezin dituzte beren oinarrizko betebeharra ordaindu; familia ugarik etxeko pentsiodun baten diru sarrera bakarra dute; honekin guztiarekin, negozio “ederrak” egiteko, pentsioen sistema publikoaren porrota aldarrikatu eta pentsioen dirua kudeatu nahi duen iruzur sozial handi bat bizi dugu”.

Arkupeak-ek, jubilatuen elkartea guztiekin batera, Iruñeko manifestazioan parte hartu zuen bizi mailaren araberako pentsio sistema pu-

blikoa, eta legeak onartzen duen urteroko KPI baino balio handiagoa lortzeko eskatuz.

Gure inguruan, nekazaritza erregimeneko pentsiodun ugari dago. Horregatik araubide orokorrarekin parekatzea eskatzen da, eta pentsio txikia duten emakume alargunek justiziaz dagokiena kobratzea.

10. buletinean, Arkupeak-en babesarekin, "adinekoek krisiaren aurrean" eskaerak laburten dira:

- 1.- Pertsona guztientzako pentsio duinak.
- 2.- Osasun publiko unibertsala, doanekoa eta kalitatezkoa, eta geriatriak osasun zentroetan.
- 3.- Ahulenen, batez ere, persona adinekoen osasun eskubidea mugatzen duen osasun aurreordainketa indargabetzea.
- 4.- Mendekotasunerako murrizketak bertan behera uztea, eta mendekotasuna duten pertsonen bizitza duina izateko eskubidea breskuratzea.
- 5.- Adinekoak gizartean eremu guztietan egotea eta guretzat ordezkaritza organoak izatea, eta ez gure kargura.

Azkenik, 25.buletinean, Baztan Bidasoako Pentsiodunen Plataformaren aldarrikapen nagusienak jasotzen dira, eta horietako batzuk hemen laburten dira:

- Pentsio duinen bermea.
  - Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen gutxieneko pentsioa (1.080 euro).
  - Pentsioen urteko errebalorizazioa ( KPI baino txikiagoa ez dena).
  - Nekazaritza erregimeneko pentsioen kalkulua egokitzea erregimen orokorrarekin parekatuz.
- Eskaera hauek guztiak Arkupeak-ek ere onartu eta eskatzen ditu.

## GURE HILDAKOAK

Lehen aipatu dugun bezala, bazkidearen egunean, hildako bazkide guztiak urtero gogortzen dira, haien izena aipatuz mezaren ospakizunean.

Dudarik gabe, oroimen berezi bat merezi dute gure elkartea sortu eta garatzen lagundi zuen guztiak: sortzaileek, Zuzendari-Batzordeakoek, delegatuek eta boluntarioek.

Buletinak eta aldizkariak aztertuta, kopuru handi bat agertzen da, baina litekeena da denak ez agertzea eta, horregatik, ez ditugu aipatuko, baten bat ahaztuko bailitzaiuge.

Nolanahi ere, bi salbuespen egin nahi ditugu, 25 urtez gure presidentea izan zen Felipe Ganboa eta Paulo Irastorza, idazkaria, guztion omenaldia eta oroimena merezi dutelako.

# 2011-2022 Arkupeak-en historia

## 2011-2022 Historia de Arkupeak



Felipe Ganboa, presidente ohia

### Felipe Ganboa

19. buletinean, Doneztebeko parroki-elizan egin zen Feliperen hiletan Jose Luis Legarra presidentearen hitzak jasotzen dira, bere familia eta bazkide talde handi bat bertan zirelarik.

Horrela dio: "Felipe, utzi gaituzu, baina beti gogoratuko zaitugu.

Zuk, beste lagun batzuekin, sortu zenuen Arkupeak jubilatuaren elkarteak, eta 25 urtez presidenteak izan zinen asko saiatuz eta lan asko eginez. Orain ohorezko presidenteak zinen.

Arkupeak elkartean aita bezala izan zara.

Urdazubitik hasita, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko jubilatuak

aunitz disfrutatu dute elkartea dela medio. Bestela ez zuten parte hartuko antolatutako bidaia, ikastaro, ospakizun eta gainerako ekitaldietan.

Goraipatu behar dira hor sortutako integrazioa eta bizikidetza edo konbiventzia,

Elkartearren lan soziala kontutan hartuta, 2010ean Nafar Gobernuak eman zion elkarteari Karlos III.a Noblearen Gurutzea izeneko domina eta, zuk, Felipe, jaso zenuen urte horretako ekainaren 29an, Nafar Jauregiko Tro-nu Aretoan.

Arkupeak elkartek bizkor jarraitzen du 2.700 bazkiderekin, eta saiatuko gara zuk erein duzun hazia garatzen eta proiektu eder hau aurrrera eramatzen.

Denen izenean, eskerrik asko, Felipe, esker hauek zabalduz emazteari, zuri María Jesús, eta familiari, zuen laguntza ere oso garrantzitsua izan zelako Arkupeak elkartea martxan jarri zen garai haitan.

Eskerrik asko, bada, bihotz-bihotzez, eta goian bego”.

Lander Santamariak, 2018ko irailaren 26ko Noticias de Navarra egunkarian Obituario bat argitaratu zuen izenburu honekin: “Felipe Ganboa Jorajuria, Arkupeak pentsiodunen elkartearren sortzailea, atzo hil zen 86 urte zituela”.

1986an, hilak eta herriko beste hiru lagunek, Bidasoa eskualdeko ehunka adineko, eta Nafarroako eta Gipuzkoako beste herri batzuetan bizi zirenak elkartuz erakunde berri bat sortzea erabaki zuten, jarduera eta zerbitzuen erreferente bihurtu, sendotu, eta 32 urtetako ibilbidean eredua den erakunde bat lortu arte.

Sunbillako Lapitzeta etxearen jaioa, lan handia egin zuen Doneztebeko herrian Udalarekin batera honako hauek kudeatuz: Gizarte Segurantzaren eskualdeko delegazio bat ireki; tutoretapeko etxebizitzak eraiki; Azkarreta etxearen azpia, gaur egun udal-ondare dena, berreraiki. Adinekoen egoitza eta Eguneko Zentro bat sortu nahi izan zuen (nahiz eta ez den zerbitzuan jarri). Arkupeak elkartearren egoitza erosi zuen lursail bat trukatu ondoren.

Bitztaren bigarren erdia besteen alde eta, batez ere, adinekoen zerbitzura eman zuen. Garai hartan zerbitzu sozialik ez zegoen, edo gaur egungoak baino askoz txikiagoak ziren.

Arkupeak sortu zenean, adineko pertsonen sektorean mugimendu handi bat hasi zen, aisia diko eta bidaietako jarduerekin.

Izaera sendoko gizona, erakunde ofizialetan etengabe mugitzen zen, eta goizeko izarrari eta arduradun politikoei egiak kantatzan zizkien.

Iruñari dagokionez, ezaguna izan zen bere

esaldi hau: “Belatetik behera euri asko egiten du, baina Iruñean oso gutxi bustitzen dira”. Hori guztia, gizarte zerbitzuak hobetzeko eskatuz.

Jaiotzez euskalduna, euskeraren defendatzaile sutsua zen, eta “euskararentzat begirunea eta laguntza eskatzen zuen, gure gurasoentzako hizkuntza eta nafar guztien delako”.

Ideologia desberdinak alderdiek behin baino gehiagotan proposatu bazioten ere, inoiz ez zuen inongo aukera politikorik adierazi, nahiz eta sentimentuak beti agerian utzi zituen.

Politikari baten aurrean, euskal herritarra zela adierazi zuen, eta harek baita nafarra zela erantzun; tinko eutsi zion “bai, bai nafartarra, baina baita euskal herritarra ere”.

Felipe Ganboa galtzean, Bidasoako txapeldun handi bat joan zaigu, oroitzapen ahaztezina utzi duen gizona.

## Pablo Irastorza

Pablo 2022ko azaroaren 16an joan zitzagun 70 urterekin. Ixabel Telletxearekin ezkondua, bi seme-alaba zituen eta urte askoz lan egin, jubilazioa lortu zuen eta ondoren Arkupeak-en bazkide egin zen.

